

Donostia prest errugbiko TOP14ko jai handirako

Udalak, Real Sociedadek, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Euskadiko Errugbi Federazioak jarduera programa zabala antolatu dute ekainaren 9 eta 10erako

Anoetako Reale Arena estadioak futboleko ateak errugbiko zutoinengatik aldatuko ditu, baloi borobila obalagatik eta golak entsaioengatik. TOP14 Frantziako Errugbi Ligako finalerdiek estadioaren harmailak eta hiriko kaleak zaleez beteko dituzte, hain zuzen ere, Donostiak eta Gipuzkoak eskaintzen dituzten ohiko jardueraz gain jarduera programa zabal bat aurkituko duten zaleez, errugbiaren inguruan festa handia sortuz.

Real Sociedadeko Presidentzia saileko zuzendari Andoni Iraolak; Donostiako Udaleko Kirol zinegotzi Martin Ibabek; Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismo zuzendari Iker Goiriak; Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Kirol saileko kabinete buru Nekane Zeberio; Euskadiko Errugbi Federazioko presidente Iñaki Ricak eta Frantziako Errugbi Ligako lehiaketa zuzendari Richard Caicioppok ekitaldiaren berri eman dute, hain zuzen ere, finalerdien partidez harago doan ekitaldien berri. Gogoan izan, partida hauetatik aterako direla hilaren 17an Pariseko Frantzia Estadioan finala jokatuko duten bi taldeak.

Partida ostiralean eta larunbatean

Kirol arloan, ekainaren 9an, ostiralean, 21:05ean Toulouse eta Racing 92 taldeek lehen finalerdia jokatu dute Anoetako Reale Arena estadioan. Dagoeneko sarrerak agortuta daude. Toulousek finalerdia sailkatu da Ligan lehen postuan geldituta, eta Racing 92 taldeak aldiz, lehengo asteburuan Satde Français taldeari irabazita lortu zuen finalerdirako txartela.

Ekainaren 10ean, larunbatean, 17:00etan bigarren finalerdia jokatuko dute Stade Rochelais eta Bordeaux Bègles taldeek. La Rochelleko taldeak bigarren amaitu du Liga eta zuzenean finalerdirako sailkapena lortu du, eta Bordeaux Bèglesek, aldiz, Lyoni irabazi zion lehengo igandean.

Jarduera programa zabala

TOP14ko finalerdiei esker errugbia protagonista izango da Donostian, eta donostiarrek zein hirira etortzen diren zaletu guztiek hiriko hainbat puntutan antolatu diren jarduera programa zabalarekin disfrutatu ahal izango dute.

Donostiako Udalak eta Frantziako Errugbi Ligak eskuorria egin dute eta sailkatutako lau taldeetako zaleen artean banatu dute, baita sarrera hartu duten pertsonen artean ere, eta gainera, 5.000 ale banatuko dira hiriko hainbat lekutan. Bertan, zerbitzuen informazio praktikoa ematen da, baita hirira zein estadiora iristeko eta jarduerak antolatu diren eremuetara sartzeko hainbat gomendio ere.



Zaletuek bi lekutan bilduko dira bereziki: alde batetik, Anoetako Reale Arena estadioko hegoaldean jarriko den Fan Zone-a, eta bestetik, Saguesen jarriko den Village du TOP14 eremua.

Real Sociadadekin lankidetzan estadioaren hegoaldeko eremuak musika jarduerak eta jateko zein edateko salmenta tokiak egongo dira ostiralean eta larunbatean. Ostiralean, Fan Zone-ak 17:00etan irekiko ditu ateak eta partida hasi baino ordu erdi lehenago itxiko da. Behin partida amaituta Fan Zone-a berriro irekiko da eta 2:00ak arte egongo da irekita. Bestalde, larunbatean, jarduerak 11:00etan hasiko dira partida hasi eta ordu erdi arte, eta behin partida amaituta 19:00etan jarduerari berriro ekingo zaie eta gauerdia arte iraungo dute.

Saguesen Bera Bera Errugbi taldeak Basque Beer Festival garagardo azoka antolatuko du. Gaur arratsaldean, 18:00etan, zabalduko ditu ateak. Asteazkenean eta ostegunean karpa zabalik egongo da 18:00etatik 0:00etara arte, eta ostiralean eta larunbatean, berriz, 11:00etatik 0:00etara. Gainera, Atlético San Sebastián eta Gipuzkoako eta Euskadiko Errugbi federazioekin batera, hainbat animazio, errubian hasteko tailerrak eta Zurriolako hondartzan 14 eta 16 urtez azpiko partidak antolatuko dira.

Gainera, hiriko hainbat tokitan bi egunei kolorea emango dieten jarduerak antolatu dira, besteak beste, Katalunia plazan, Artzain Onaren inguruan, Easo plazan edo Pio XII.ean. Herri Kirolen erakustaldia, euskal gozoen merkatua, bertsolariak, trikitilariak edo zaleak estadiora lagunduko dituzten txarangak.

Informazio guztia www.donostia.eus/top14 webgunean dago eskuragarri.

Euskarians – Catalunya

Jai-ekimenekin batera, Anoetako kirol hirian larunbatean goizean interes handiko bi kirol-jarduera antolatu dira. 11:00etatik aurrera Karmelo Balda frontoian Jai Alai Music & Drinks festibala antolatu du Jai Alive erakundeak. Helburua da zaleak zesta puntara hurbiltzea.

Eta eguerdiko 12:00etan Anoetako Miniestadioan Euskarians eta Catalunya selekzioen arteko partida ikusteko aukera egongo da, Euskadiko Errugbi Federazioak antolatuta. Partida ikusteko, doako gonbidapena hartu beharko da federazioak Fan Zone-aren inguruan jarriko duen karpan.

Donostia, 2023ko ekainaren 7a

